



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

UDAL INFORMAZIOA - 2018ko otsaila

Egun on aranztar, ondoko orri hauetan herriko hainbat konturen berri eman nahi dizuegu.

HERRIKO BESTETAKO KONTUAK

Bestak aspaldi pasatu baziren ere, hementxe dituzue diru kontuak:

IRTEERAK		SARRERAK	
Argi-indarra	337,08€	Herri bazkaria	2.625€
Elektrotzaranga	850€	Postuak	180€
Bertsolariak	900€	Sarrera/borondatea	402,96€
Txamukos	1.250€	Publizitatea	2.028€
Fan & Go	1.500€		
Bide Batez	1.573€		
Trikidantz	2.300€		
Trikidantz afaria	177,1€		
Bazkariak	693€		
Puzgarriak	968€		
Piroteknia	229,32€		
Herri Kirolak	1.900€		
Pilotariak	1.600€		
Esku programak	1.137,4€		
Herri bazkaria	2.994,5€		
Taberna	72,94€		
SGAE	491,73€		
Xorroxin	77€		
Gurutze Gorria	130,68€		
Luntxa	130€		
IRTEERAK DENERA:	19.311,75€	SARRERAK DENERA:	5.235,96€

UDAL PLAN OROKORRA

Urteak ez dira ez alferrik pasatzen eta Arantzako arau subsidiarioak zaharkituta gelditu zaizkigu. Hau aldatu eta ondoko 20 urtetan nolako Arantza nahi dugun finkatzeko plana egitea beharrezkoa dela ikusten dugu. Horregatik, 2017ko ekainaren 17an Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko Kontseilariak eta Arantzako alkateak **UDALEKO PLAN OROKORRA** abiatzeko hitzarmena sinatu genuen. Udal Plan Orokorra egiteko lanak esleitu dugu eta aurkeztu direnen artean udalarentzat lan egiten duen arkitektoaren enpresa hobetsi dugu.

Hasi berri dugun urte honetan gai honi buruz solastu, eztabaidatu eta denon arten landu beharko dugu. Horretarako denon parte-hartzea beharrezkoa denez, agudo hau lantzeko bileretara deituko zaituztegu.

AUTOENTZAKO ABIADURA SEINALEAK

Herriaren sarreran bi seinale ditugu, batean 60 paratzen du eta bertzean 40. Agudo horietan aldaketak eginen ditugu: 60koaren partez 40 paratuz eta 40koaren partez 30. Gainera, Oskoz-Eneatik goiti oin arrastoak margotuko ditugu oinezkoak bertan ibiltzeko. Neurri honekin oinezkoak eta haurrak, batez ere, eskolara edo herrira oinez nahiz bizikletaz lasai etortzea nahi dugu. Aldaketa hau herritar guzientzako onuragarria izanen delakoan gaude.

MENDIA

Arantza mendiz inguraturiko herria dugu denok ederki aski dakigunez. Hau dela eta, kanpotik jende aunitz etortzen da mendiaz gozatzera. Guretzat, berriz, berriki arte lan egiteko lekua izan da mendia, eta azken urteotan hori aunitz aldatu da.

Mendian basoa dugu eta horri esker ura ausarki. Zura eta su egurra egiteko aukera ere bai, eta horrekin batera abereak bertan bazkatzeko modua. Gozagarri ere bada bai ibiltzeko, bai ehizan aritzeko nahiz fruituak biltzeko. Baina zaindu ere egin behar dugu. Denona da eta denon eginbeharra da ahal den hobekien zaintzea, gero heldu direnek ere aukera bera izan dezaten. Gainera, medikuek diotenez aski ona omen da buru eta gorputzarentzako ibiltzea, ahal baldin bada oinez!

Guzi honekin gure mendi ederretan auto, traktore, "todo terreno" edo bertze motordun ibilgailuekin ahalik eta gutien ibili behar dugula erran nahi dugu. Pistetan bai ibiltzen ahal gara, baina horietatik kanpo ez genuke ibili behar. Izan ere, mendia ahula da eta aunitz kostatzen zaio hondatu ondotik bere onera etortzea.

HERRIA ETA ZAKURRAK

Nola aldatu diren garaiak, beharrik! Garai batean herrian ere aziendak baziren, eta honekin batera gorotza, kaka... Gaur egun, berriz, ez dugu horrelakorik, ezta baserrien atarrietan ere, denok ahalik eta txukunen eduki nahi baititugu.

Herrian, ordea, ez dugu karrikak eta plaza gorotzik gabe edukitzea lortzen. Zeba? Ez al zaigu ba inporta kaka zanpatzea, haurrak jostetan ari direnean eskuak zakur kakaz zikindu eta ahora eramatea?

Herria zaintzea denon lana eta ardura dela uste dugu. Herrian barrena suelto dabilizan zakurrak jabeek kontrolatu behar dituzte, edo kulero bana paratu, edo haren gibeletik joan kaka egiten duenean biltzeko!

ESKOLA

Azken udan ere eskolan hainbat lan egiteko aprobetxatu dugu. Berokuntza sisteman arazo bat izan zen eta galdara aldatu behar izan genuen, lehen bezala orain ere pelletarekin dabilena. Hau, hala ere, aunitzez hobea da eta luzarorako izatea espero dugu.

Ikasgeletan ere zenbait aldaketa ttiki egin ditugu, tximinia luzatu eta atariko paretan sare batzuk paratu haurrak teiltura ez igotzeko.

MENDI LANAK

Bukatu berri den urte honetan lau baserri-auzoetan hainbat lan egin ditugu:

Eguzkialdean: - Zerrakurak bildu eta Igantziko mugatik Astaloko pista zabaldu.

Azkilarrean: -Gaisenberroko bordatik Senberroko bordarako bidea moldatu.

-Artxamatik Meakarako bidea moldatu.

-Larrainbordako kanadiar pasabidea moldatu.

Bordalarrean: -Garaiko bordatik Bulatxikirako bidean hormigoia bota.

-Meakako bidean eta Sagargoxon kanadiar pasabideak egin.

Aientsan: - Madalenbordatik Bordattikirako bidean hormigoia bota.

TRIKITIXA JAIALDIA

Bertze urte batez, aurtengoan martxoaren 10ean, trikitixa jaialdia izanen dugu. Ehun musikaririk goiti igoko dira oholtzara, herritarrak zein kanpokoak. Azpeitiko Sahatsa dantza taldeak ere emanaldia eskainiko du. Aurten herriko txistulariak omenduko ditugu.

BELATEKO TUNELAK

Nafarroako Gobernuak, Europatik heldu den agindu bat betez, Belateko tuneletan segurtasuna hobetzeko obrak eginen dira. Horregatik, maiatzean hasi eta zazpi hilabetez itxita egonen dira. Itxi baino lehen errepide zaharrean egokitze lanak eginen dituztela ere erran digute.

ZUENA DA HITZA!

Xoko honetan udalari jakinarazi nahi diozuna paratu dezakezu: zure proposamenak, kritikak, hobekuntzak, iradokizunak, etab. Zure iritzia idatzi eta papera plazan honetarako espresuki paratu dugun ontzian uzten ahal duzu. Eskerrak aunitz zuen ekarpenengatik!



IRADOKIZUNAK: